



Bilboko  
Elizbarrutia  
DIÓCESIS DE BILBAO

**KREAZIOA**

**C SAIOA**

**ETXEAN, FAMILIAN EGITEKO**

Delegación de Anuncio y Catequesis  
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza





**"ETA EGIN ZUEN GUZTIA  
OSO ONA ZELA IKUSI  
ZUEN JAINKOAK"**

**Has 1, 31**

## **1. Helburua**

- Jainkoak maitasunez sortzen gaituela, guztion Aita dela eta zorioneko izateko behar dugun guztiarekin bizitza ematen digula jakin.

## **2. Helburu bereziak**

- Mundua Jainkoaren kreazioa dela antzeman, maite gaituelako sortzen duela mundua eta sortzen gaituela gu geu.
- Kreazioaren oparietatik liluratuta eta esker oneko sentitu.
- Gutariko bakoitza Jainkoaren kreazio garelako konturatu eta horren aurrean esker ona adierazi.
- Jainkoak gizon eta emakume guztiok "bere antz eta irudiko", desberdin, baina duintasunean berdín, sortzen gaituela antzeman.
- Kreazioaren eta pertsona guztien zainketan Jainkoaren laguntzaile izateko erantzukizuna dugula antzeman.

## **3. Saioak**

- C saioa, etxean, familian egiteko.

## **4. Aurkituko duzuna**

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitzak, txatalka.
- Abestia / ipuina/ bideoa.
- Saioaren garapenerako jarduerak eta azalpen zehatzak.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

# C SAIOA ETXEAN, FAMILIAN EGITEKO



## Motibazioa

- Jainkoak bizia ematen digu eta bere seme eta alaba egiten gaitu.



## Azpimarrak

- Jainkoak bizia ematen ditu eta bere seme eta alaba egiten gaitu.
- Kreatzioa, gure bizilekua da; Jainkoak leku bat ematen digu gure familiarekin haz gaitzen..., eta leku hori opari eder bezala zain dezagula eskatzen digu.



## Idea nagusiak

- Jainkoak bizia ematen digu eta zorioneko izan gaitzela nahi du.
- Jainkoak maitasunez sortzen gaitu.
- Jainkoak sortu duena geure egiteko eta zaintzeko askatasun eta erantzukizuna.



## Saioaren garapena begi-kolpe batean

### Jainkoaren Hitza, txatal argitzailea

“Eta Jainkoak esan zuen: «Izan bedi argia». Eta izan zen argia” (...).

“Jainkoak esan zuen: «Egin dezagun gizakia; izan bedi gure irudiko, gure antzeko” (...)

“Eta egin zuen guztia oso ona zela ikusi zuen Jainkoak”

Hasiera, 1, 3. 26. 31

“Tu Primera Biblia”, Edebe, 1 zenb. 10. or eta hur.

### Bideoak

#### Abesteko, klik egin irudian




DESPIERTA - Lema Maristas 20-21 (Infantil)  
[https://www.youtube.com/watch?v=\\_UIfibRI\\_Ao](https://www.youtube.com/watch?v=_UIfibRI_Ao)

### Jarduera, “Kreazioaren erantzunkide”



### Bilketa eta laburpena egiteko proposamena

- Sinboloak: kandela, gurutzaren seinalea egin. Otoitz laburra, Gure Aita.
- Zer ikasi dut gaur etxean?
- Nola sentitu naiz?



## Saiorako gida

### Familiarentzat...



### Lehen unea

#### Etxean elkarrizketan jarduteko argibideak

- Guraso eta hurrek parrokian egindakoa batera jarriko dugu. Zer egin dugu? Nola sentitu gara? Zer gustatu zaigu, zer kostatu?
- Etxean, "Tu primera Biblia" liburuko 10. eta hurrengo orrialdeak irakurriko ditugu edo III. eranskinean jasotzen den Hasiera liburuko idazkia. Neska-mutikoen parrokian egin zuten Kreazioaren erruletaz ere balia gaitzke, idazkian aurrera egin ahala erruletari jira eginez.
- Kreazioa eta gure seme eta alaben jaiotzaren esperientzia lotuko ditugu. Ernaldira joz, zera gogoratuko dugu: une horretan prestatzen eta garatzen direla bizitzeko ezinbesteko diren organoak eta hasieratik sortzen dela bizitza osoan irauten duen batasuna.
- "Eta egin zuen guztia oso ona zela ikusi zuen Jainkoak", solasean jardun zuon seme eta alabekin eta esan zer sentitu zenuten lehen aldiz haiek ikusi zenituztenean, nola begiratzen zenieten, nola sentitu zineten.
- Biziz beteriko esperientzia hau kontatzen diegun bitartean, mutiko edo neskatoak I. eranskinean jasotzen den orria margotuko du, Jainkoak horrela sortu gaitueneko ideia nagusiarekin lotuz.

#### Familian egiteko proposamenak<sup>1</sup>

Non zaudeten kontutan izanik -basoan, mendian, itsasoan, hiriko lorategian, e.a.-, era bateko edo besteko jarduerak garatu, hurrek Izadia Sortzailearen egintza bezala begiesteko eta miresteko ohitura izan dezaten:

- Begira loreei, landareei, ereindako soroei, txoriei, arrainei, ikusten dituzuen abereei. Irakatsi hurrei izaki horien izena eta adierazi beren ezaugarriak: kolorea, fruituak, itxura, neurriak, indarra, arintasuna eta azaldu zuen harridura, "Zein polita! Benetan harrigarria!" esamoldeak eta antzerakoak erabiliz.
- Egon zuhur eta entzun isilean izadiaren hotsak: haizea, uren zurrumurrua, zorroren eta txorien abestia, abereek adierazteko dituzten erak...
- Izadiak hainbat gertaera eskaintzen digu. Begira arretaz: ekaitza, ostarkua, egunsentia edo ilunabarra.
- Balia gaitzen elkarrekin egiten ditugun bazkari-afariez, jaten ditugun elikagaiez (landare nahiz abere), jatorriari buruz elkarrizketan jardunez.
- Tebistak aukera ugari eskaintzen du gertuko duguna nahiz beste herri, arraza eta kulturatako adierazpen anitzak ezagutzeko. Nahikoa izango da zuen azalpen labur eta argia hurrek gizon eta emakume guztiok berdinak garela eta duintasun bera dugula uler dezaten. Aldi berean, ezinbestekoa da askotariko kulturen aberastasunaz eta beren adierazpenen edertasunaz jabearaztea.
- Astia hartu, lasai-lasai umeekin zuen ingurura begiratzeko. Egokia litzateke mutiko eta neskatoak, ingurura begiratzeaz gainera, gurasoekin batera bizpahiru aldiz errepikatzea: "Gure Jainko eta Aita. Zein politak diren lurra, abereak... eta bertan bizi garen guztiok!".

<sup>1</sup> Iruña eta Tutera, Bilbao, Donostia eta Ga steizko Elizbarrutietako Ordezkaritza eta Idazkaritzek argitaratutako 'Esnatu!' lagungarrien 1. mailako gida pedagogikoko 1. eta 2. gaietatik hartuta. 2010.

## **Bigarren unea. Etxean egin eta hurrengo egunean katekesiko bilerara eramateko jarduera**

- Guraso izatearen esperientziara joko dugu berriz ere. Seme eta alabak zaintzeko, babesteko eta hazten uzteko konpromisoan jarriko dugu arreta; horixe da, hain zuzen ere, Jainkoaren borondatea betez, sortu duen guztiarekin egin behar duguna.
- Jainkoak egundoko altxorra oparitu digu. Norbaitek benetan axola dion zerbait duenean, ekintza eta jarrera guztiak hari begira daude: eutsi, zaindu, gozatu eta eskertu.
- Familian, II. eranskina bete, "nola zain dezakegu Jainkoak oparitu diguna?" galderari erantzunez, eta katekesiko taldean batera jarriko dugu.
- II. Eranskinean, planetari laguntzeko konpromisoak zehazteko lagungarri izan daitezkeen irudiak aurkituko ditugu adibide erara. Hona hemen adibidea.



**Zaborra bereizi**



**Erabiltzen ez ditudan jantziak norbaiti eman**



**Txorrota itxi hortzak garbitzen ditugun bitartean**



**Paperrik ez bota lurrera**

## **Hirugarren unea. Otoitzaldi laburra familian**

**"Egunean zehar, zein unetan gauden denok ikusi eta orduan bildu"**. Ez da erraza izaten, baina seguru aurkituko duguna, egunean... edo astean, 10-15 minutuko tartea elkartu eta otoitz egiteko.

**"Musika apur bat"**. Itzali etxeko tramankulu zaratatsu guztiak eta lasaitzen, abiadura moteltzen lagunduko digun musika jarri.

**"Isilunea"**. Etxea isilik, zaratarik gabe dugula, isiltasuna 'entzuteko', dena itzalita dagoenean zer entzuten den jakiteko, aukera izango dugu.

**"Geure buruaren barrualdera begiratu"**. Geure burua aztertuko dugu nola sentitzen garen ikusteko: alai, triste, baikor, ezkor, amorratuta, sututa, esker oneko... eta besteen aurrean batera jarriko dugu.

**"Zerrenda eta eginkizuna"**. Kandela piztuko dugu, Jesus gure artean dela adierazteko. Gurutzearen seinalea egin eta **"Despierta"** abestia entzungo dugu.

Konpromisoren bat, elkarrekin, familian, Jainkoaren egundoko oparia, lurra, denona den etxea, zaintzeko egin dezakegun zerbait pentsatuko dugu.

**“Jainkoari kontatuko diogu”**. Eskerrak emango dizkiogu Jainkoari kreazioagatik, gure bizitzagatik eta behean dagoen *“Eskerrik asko, Aita Jainkoa”* otoitza egingo dugu denok batera.

**“Arnasa hartu”**. Berriz ere, isiltasuna “entzun” egingo dugu. Une batez arnasa patxadaz hartu eta, ondoren, ohiko gauzetara itzuliko gara.

Gure denbora husteak, geldiuena egin eta pentsatzeak, geure barrualdera begiratzeak, une batez Jainkoarengan pentsatzeko aukera ematen digu. Eta harrigarria da, Nazaretoko Jesusen Jainkoarekin bat egin ondoren, bizitza, egunerokoa, beti desberdina dela egiaztatzea.

**Abesteko,  
klik egin irudian**



**Eskerrik asko, Aita Jainkoa!**

**Eskerrik asko, Aita Jainkoa, asko maite gaituzulako!**

**Eskerrik asko, Aita Jainkoa, oparitu diguzun biziagatik!**


**Eskerrik asko, Aita Jainkoa, zorientasunerako bidea erakusteagatik!**

**Eskerrik asko, Aita Jainkoa, Kreazioa zaintzeko ardura emateagatik!**



## I. Eranskina

Marratzu zeure burua:



## II. Eranskina



**Nola zain dezakegu jainkoak  
oparitu diguna?**





# ERANSKINAK ETXEAN, FAMILIAN EGITEKO

## III. Eranskina

"INGURURA BEGIRATZEN DUGUNEAN, GAUZA ASKO IKUSTEN DUGU.  
DENAK SORTU ZITUEN JAINKOAK.

HASIERAN, DENA NAHASITA ZEGOEN, NAHASTE-BORRASTE HANDIA  
ZEGOEN. BAINA ESAN ZUEN JAINKOAK: «ILUNTASUNEAN EZIN DA  
EZER IKUSI, IZAN BEDI ARGIA».

ETA, BAT-BATEAN, DENA ARGITU ZEN.  
ETA HORRELA AGERTU ZIREN EGUNA ETA GAUA.

BIHARAMUNEAN, JAINKOAK ZERUA SORTU ZUEN,  
DENA ESTALTZEN ZUEN SABAI ERARA.  
ONDOREN, EGUN OSOA EMAN ZUEN URA ETA LURRA BANANTZEN,  
ETA HORRELA KONTINENTEAK SORTU ZITUEN.  
BAINA LURRA ITSUSI SAMARRA ZEN ORAINDIK.  
DENA MARROIA ETA HARRI ANTZEKOA.

HORREGATIK LANDAREEN ETA FRUITUZ BETERIKO ZUHAITZEN  
KAPA BERDEAZ ESTALI ZUEN.

BIHARAMUNEAN, JAINKOAK ORDULARI ERRALDOIA SORTU ZUEN ZERUAN.  
EGUZKIAK EGUNA MARKATUKO ZUEN ETA ILARGIAK GAUA.

BESTE EGUN BAT IGARO ZEN,  
ETA JAINKOAK ARRAINEZ ETA ASKOTARIKO ANIMALIA  
ETA BIZIDUNEZ BETE ZUEN ITSASOA  
ETA ZERUA HEGAZTIZ BETE ZUEN.

HURRENGO EGUNEAN, JAINKOAK ERA GUZTIETAKO ANIMALIEZ  
BETE ZUEN LURRA: LEHOIAK, ELFANTEAK OTSOAK... ETA BAITA INSEKTU  
ETA NARRASTIAK ERE... BAINA KREAZIOA OSATU GABE  
ZEGOEN ORAINDIK. AZKEN EGUNERAKO UTZI ZUEN GARRANTZITSUENA.

ESAN ZUEN: «NIRE ANTZ HANDIA DUEN NORBAIT SORTUKO DUT,  
NEURE IRUDIKO». ETA HORRELA SORTU ZITUEN GIZAKIAK, GIZON ETA  
EMAKUME. ETA KREAZIO HANDI HORI ZAINTEKO AGINDU ZIEN, ESANEZ:  
«HAZI ETA UGARITU ETA LURRA BETE ETA ZAINDU.  
ANIMALIEZ BETETAKO MUNDUA EMAN DIZUET, ETA LURRAK GUZTIONTZAKO  
ADINA JANARI EKOIZTEN DU, KREAZIOA, AURRERANTZEAN ERE,  
MUNDU ONA IZAN DADIN».

AZKENEAN, GUZTI HORI  
SORTU ONDOREN, JAINKOAK ATSEDEN HARTU ZUEN.